



**Espediente zk./Nº Expediente:** 2021IGOB0016

**Gaia/Asunto:** Tokiko Gobernu Batzarra 20211214/Junta de Gobierno Local 14/12/2021

**Tokiko Gobernu Batzarra 2021eko abenduaren 14an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.**

Errenteriako Udaletxean, 2021eko abenduaren 14ko 09:15ak zirela, lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (EH Bildu Orereta/Errenteria), ondoko zinegotziak elkartu dira:

**EH Bildu Orereta/Errenteria**

- Itziar Ostolaza Galdos
- Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi
- Bernar LEMOS TABERNA
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

**Elkarrekin Errenteria**

- Maite Gartzia Ontiveros
- José Manuel Ferradás Freijo

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore Sarasola Otermin Idazkaria.

**1. 2021ko azaroaren 16an (2021IGOB0013) eginiko ohiko bilkura eta 2021 abenduaren 2an (2021IGOB0015) eginiko ezohiko bilkura dagozkien akten irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.**

Oharrrik gabe onartu dira.

**2. Kontratazio publiko arduratsuen arloari buruzko hitzarmena, ERRETERIAKO UDALA eta GIZATEA - GIZARTERATZEKO ETA**

**Acta de la sesión ordinaria de Junta de Gobierno Local celebrada el día 14 de diciembre de 2021.**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 09:15 horas del día 14 de diciembre de 2021, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de la Alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (EH Bildu Orereta/Errenteria), las siguientes Concejales y Concejales:

**EH Bildu Orereta/Errenteria**

- Itziar Ostolaza Galdos
- Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi
- Bernar Lemos Taberna
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

**Elkarrekin Errenteria**

- Maite Gartzia Ontiveros
- José Manuel Ferradás Freijo

Asiste y da fe del Acto La Secretaria Nagore Sarasola Otermin.

**1. Lectura y aprobación en su caso de las Actas correspondientes a la Sesión Ordinaria del 16 de noviembre de 2021 (2021IGOB0013) y extraordinaria del 2 de diciembre de 2021 (2021IGOB0015).**

Se aprueban sin observación alguna.

**2. Aprobación del convenio entre el AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA y GIZATEA - ASOCIACIÓN DE EMPRESAS DE INSERCIÓN DEL**



**LANERATZEKO EUSKADIKO ENPRESEN  
ELKARTEAren artekoa onartzea. (2021ZHIT0016)**

**PAÍS VASCO en materia de contratación pública  
responsable. (2021ZHIT0016)**

BAT.- GIZATEA – GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO EUSKADIKO ENPRESEN ELKARTEA entitateak Errenteriako Udalari proposatu dio kontratazio publiko arduratsuari buruzko hitzarmena sinatzea.

UNO.- La Entidad GIZATEA – ASOCIACIÓN DE EMPRESAS DE INSERCIÓN DEL PAÍS VASCO, ha propuesto al Ayuntamiento de Errenteria la suscripción de un Convenio sobre la contratación pública responsable.

Bestalde, Errenteriako Udalaren kontratueta klausula sozialak txertatzea 2019-2023rako onartutako aginte-planaren proiektu estrategikoetako bat da.

De otra parte, la inserción de cláusulas sociales en los contratos del Ayuntamiento de Errenteria es uno de los proyectos estratégicos dentro del Plan de Mandato aprobado para 2019-2023.

**ZUZENBIDE OINARRIAK**

**FUNDAMENTOS DE DERECHO**

- Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena.

- Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas

- Urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.

- Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

- Abenduaren 9ko 19/2013 Legea, gardentasuna, informazio publikorako sarbidea eta gobernu onari buruzkoa (8.1.b) artikulua).

- Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno (art. 8.1.b).

- Sektore Publikoko Kontratuaren Legea (9/2017 Legea, azaroaren 8koa).

- Ley de Contratos del Sector Público (Ley 9/2017 de 8 de noviembre).

**Hitzamenaren objektua eta helburuak:**

**Objeto y objetivos del Convenio:**

Hitzarmen honen objektua eta helburuak ondorengoak dira:

El objeto y los fines del presente Convenio son los siguientes:

Hitzarmen honen bidez, kontratazio publiko arduratsua arloko lankidetzari forma ematea, aplikazio baten bitartez proba experimental bat egiteko, hurrengo bi urteetarako erreserbatutako kontratuen plangintza-programa bat garatzeko eta udal-kontratazioan klausula sozialak ezartzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko EREIN Proiektuaren esparruan barne.

Dar forma mediante este Convenio a la colaboración en materia de contratación pública responsable para la realización de un prueba experimental, a través de una aplicación, para desarrollar un programa de planificación de los contratos reservados durante los dos próximos años y la implementación de cláusulas sociales en la contratación municipal, en el marco del Proyecto EREIN de la Diputación Foral de Gipuzkoa.



### **Alderdien Ekintzak eta konpromisoak:**

1.- GIZATEAK konpromisoa hartzen du aplikazio bat garatzeko. Aplikazio horrek aukera emango du Errenteriako Udalaren kontratazio publikoa aztertu eta planifikatzeko, kontratu erreserbatuei eta klausula sozialak txertatzeari dagokionez. Zehaztutako helburuak betetzeko behar den lan teknikoa egiteko konpromisoa ere hartzen du, eta era berean, GIZATEAK lanaren jarraipen bat egingo du, Errenteriako Udalarekin bilera teknikoak eginez.

2.- ERRETERIAKO UDALAK giza baliabideak jarri beharko ditu aplikazioan informazio jakin bat betetzeko eta GIZATEAREKIN batera hura aztertzeko.

### **Hitzarmenaren iraupena eta indarraldia:**

Hitzarmen hau bi alderdiek sinatzen duten egunean sartuko da indarrean, eta hamabi (12) hilabetez egongo da indarrean bosgarren klausulan adierazi denez; alderdiek hala eskatzen badute, hitzarmena luzatu ahal izango da, bi alderdiek berariaz hala adostuta, eta helburu bereberekin.

### **Jarraipen Batzordea:**

Hitzarmenaren laugarren klausulan Jarraipen Batzorde bat aipatzen da. Batzorde hori alderdi sinatzaileen ordezkari hauek osatuko dute:

a) GIZATEA – GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO EUSKADIKO ENPRESEN ELKARTEAK izendatutako bi ordezkari.

b) ERRETERIAKO UDALAK izendatutako bi ordezkari.

Jarraipen Batzordea premiek hala eskatzen duten guztietan bilduko da.

### **Acciones y Compromisos de las partes:**

1.- GIZATEA se compromete a desarrollar una aplicación que permita analizar y planificar la contratación pública del Ayuntamiento de Errenteria en materia de contratos reservados y de inserción de cláusulas sociales, así como a realizar el trabajo técnico necesario para cumplir los objetivos definidos. Asimismo, GIZATEA hará un seguimiento del trabajo realizado a través de reuniones técnicas con el Ayuntamiento de Errenteria.

2.- EL AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA deberá aportar los medios humanos para cumplimentar cierta información en la aplicación y analizar la misma en colaboración con GIZATEA.

### **Duración y vigencia del Convenio:**

El presente Convenio entrará en vigor el día de su firma por ambas partes y su vigencia es de doce (12) meses conforme a la cláusula quinta del mismo, pudiendo ser prorrogado, en caso de que las partes así lo demanden, por acuerdo expreso de estas y con los mismos objetivos.

### **Comisión de seguimiento:**

En la cláusula cuarta del convenio se hace referencia a una Comisión de Seguimiento, formada por las siguientes personas en representación de las partes firmantes.

a) Dos representantes designados por GIZATEA – ASOCIACIÓN DE EMPRESAS DE INSERCIÓN DEL PAÍS VASCO.

b) Dos representantes designados por el AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA.

La Comisión de seguimiento se reunirá siempre que las necesidades así lo requieran.



**Finantziario gastuak:**

Lankidetzaren hitzarmen honek ez dio inolako finantziario kosturik suposatzen Udalari.

**Gastos de financiación:**

Este Convenio de Colaboración no supone ningún coste de financiación para el Ayuntamiento.

**Txostenak:**

Ondare eta Kontratazioko Arduradunak aldeko txostena eman du 2021eko abenduaren 03n.

**Informes:**

Con fecha 03 de diciembre de 2021 el Responsable de Contratación y Patrimonio ha emitido informe favorable.

Ondare eta Kontratazioko Ordezkariek egindako erabaki-proposamena, eta Ondare eta Kontratazioko Arduradunak, espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Vista la propuesta de acuerdo del Delegado de Contratación y Patrimonio y la conformidad dada por el Responsable de Contratación y Patrimonio a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau,

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

**ERABAKI DU**

**ACUERDA**

1.- Lankidetzaren hitzarmena onartzea, ERRETERIAKO UDALAREN eta GIZATEA – GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO EUSKADIKO ENPRESEN ELKARTEAREN artekoa, kontratazio publiko arduratsuen arloari buruzkoa.

1.- Aprobar el Convenio de colaboración entre el AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA y GIZATEA – ASOCIACIÓN DE EMPRESAS DE INSERCIÓN DEL PAÍS VASCO, para la colaboración en materia de contratación pública responsable.

2.- Alkatea ahalmentzea, zuzenbidean bidezkoa den neurrian, Lankidetzaren hitzarmen hori sinatu dezan, eta akordio hau eraginkorra izan dadin gauzatu beharrezko egintzak gauzatu eta behar diren dokumentu publiko zein pribatu guztiak eman ditzan.

2. Facultar a la Alcaldesa, en la medida que proceda en derecho, para la suscripción del Convenio de Colaboración, y para la ejecución de los actos y la entrega de cuantos documentos públicos o privados sean necesarios para que el presente acuerdo se haga efectivo.

3.- Hitzarmena udal web gunean eta Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratzea.

3.- Publicar el Convenio en la página web municipal y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

3. “2021. ekitaldian enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzei” buruzko deialdian inguruan lankidetzaren hitzarmena onartzea.(2021RPOLO124)

3. Aprobación del convenio de cooperación relativo a la convocatoria de “ayudas para acciones locales de promoción de empleo para el ejercicio 2021”.



(2021RPOL0124)

“Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Lezoko Udalak Oarsoaldea eskualde modura ezagutzen denaren kideak dira eta 2021eko uztailaren 30ean LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUARI, Errenteriako Udalaren bidez, laguntza ekonomikoaren bi eskaera aurkeztu zizkieten, 2021. ekitaldian enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzei buruzko deialdiarekin bat, 2021eko ekainaren 30eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zena. Eskaera, 1. motako laguntzetarako zen, “Enplegua sustatzea” eta 3. motako laguntzetarako, “Laneratzen laguntzeko jarduerak”.

2021eko azaroaren 8an Lanbide-Euskal Enpleguaren Zerbitzuko Laneratzea Aktibatze Zuzendariak aldeko ebazpena egin zuen, beraz, Errenteriako Udalari eskatutako diru-laguntza eman zitzaion, enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako diru-laguntzen 2021 deialdiko proiektuak gauzatzeko, bai 1 eta 3. motako laguntzei dagokienez. Aipatutako dirulaguntzen zenbatekoak 726.327,19 euro eta 64.260,00 eurokokoak dira, hurrenez hurren.

2021eko azaroaren 8ko Lanbide-Euskal Enpleguaren Zerbitzuko Laneratzea Aktibatze Zuzendariaren ebazpenaren bidez emandako dirulaguntzari dagokionez, eta 1 eta 3 motako laguntzetarako egindako eskaeraren baitan, lau udalerriek proposatu duten diru-laguntza banaketa hurrengo da:

**ERRETERIAKO UDALA:**

- 1 motako kontratazioengatik: 372.421,56 €

**PASAIKO UDALA:**

- 1 motako kontratazioengatik: 144.661,74 €

**OIARTZUNGO UDALA:**

“Los Ayuntamientos de Errenteria, Lezo, Oiartzun y Pasaia, son miembros de la comarca conocida como Oarsoaldea, y presentaron con fecha 30 de julio de 2021, a LANBIDE-SERVICIO VASCO DE EMPLEO, a través del Ayuntamiento de Errenteria, solicitud de ayudas económicas con arreglo a la convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción de empleo para el ejercicio 2021, convocatoria publicada en el Boletín Oficial del País Vasco del 30 de junio de 2021. La solicitud era para las ayudas de tipo 1, “Acciones de fomento de empleo” y las de tipo 3, “Actuaciones de acompañamiento en la incorporación laboral”.

Con fecha 8 de noviembre de 2021 se emitió Resolución favorable de la Directora de Activación Laboral Lanbide-Servicio Vasco de Empleo por la que se concedieron la subvención solicitada a favor del Ayuntamiento de Errenteria, para la ejecución de los proyectos enmarcados en la convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción de empleo 2021, tanto en las ayudas de tipo 1 y 3. El importe de las citadas subvenciones asciende a 726.327,19 euros, y 64.260,00 euros, respectivamente.

En relación a la subvención concedida por Resolución de 8 de noviembre de 2021 de la Directora de Activación Laboral de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, en función a la solicitud presentada para las ayudas tipo 1 y 3, esta es la distribución que han propuesto los cuatro ayuntamientos:

**AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA:**

- Por contrataciones de tipo 1: 372.421,56 €

**AYUNTAMIENTO DE PASAIA**

- Por contrataciones de tipo 1: 144.661,74 €

**AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN**



- 1 motako kontratazioengatik: 62.500,00 €

#### LEZOKO UDALA:

- 1 motako kontratazioengatik: 66.383,21 €

#### OARSOALDEA:

- 1 motako kontratazioengatik: 54.155,52 €

#### 3. sektoreko entitateak 1 motako kontratazioengatik:

- Arraztalo: 26.205,16€

**DIRULAGUNTZA GUZTIRA: 726.327,19 €**

**AKONPAINAMENDUA: 64.260,00 €**

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAK  
Errenteriako Udalarari dirulaguntza bi zatitan ordainduko dio, hurrengo era honetan:

Dirulaguntzaren %55, ebazpena bidali eta gero.

Gainerako %45a edo justifikazioaren ondoren geratzen den kopurua, proiektua amaitu ondoren eta handik hiru hileko epean deialdiko 9. artikuluan aurreikusitako dokumentazioa aurkeztu eta gero.

Adierazitakoaren arabera, Oarsoaldea eskualdeko lau udalerrien arteko lankidetzaren hitzarmen bat egin behar da 2021eko enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako diru-laguntzen deialdiaren baitako proiektuak gauzatzeko laguntzeko.

#### ZUZENBIDE OINARRIAK

- \* Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea
- \* 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoa.
- \* Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea

- Por contrataciones de tipo 1: 62.500,00 €

#### AYUNTAMIENTO DE LEZO:

- Por contrataciones de tipo 1: 66.383,21 €

#### OARSOALDEA:

- Por contrataciones de tipo 1 54.155,52 €

#### Entidades del 3. sector por contrataciones de tipo 1:

- Arraztalo: 26.205,16€

**SUBVENCIÓN TOTAL: 726.327,19 €**

**ACOMPAÑAMIENTO: 64.260,00 €**

LANBIDE-SERVICIO VASCO DE EMPLEO  
efectuará el abono de la subvención al Ayuntamiento de Errenteria en dos pagos, de la siguiente manera:

Un primer pago del 55% de la subvención concedida, tras la remisión de la resolución.

Un segundo pago, del 45% restante o de la cantidad que resulte de la justificación, tras la finalización del proyecto y previa presentación, en el plazo máximo de tres meses posteriores a la finalización, de la documentación prevista en el artículo 9 de la convocatoria.

De conformidad con lo mencionado, procede formalizar entre los cuatro ayuntamientos de la comarca Oarsoaldea un convenio de cooperación en la ejecución de los proyectos enmarcados en la convocatoria de ayudas para Acciones Locales de Promoción de Empleo 2021

#### LEGISLACIÓN APLICABLE

- \* Ley 40/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público
- \* Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.
- \* Ley 7/1985 de 2 de abril que regula las Bases del Régimen Local



Bete da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 55-62 artikuluetan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47 eta hurrengo artikuluetan, eta 140 artikuluan. Baita ere Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, ezarritakoa.

Giza Baliabideetako Arduradunak 2021-12-3an txostena eman du

Udal Kontu-hartzaitzaren oniritzia jaso da.

Tokiko Gobernu Batzarrak eskumenak eskuordetuta dituen 2019ko uztailaren 1eko dekretu bidez.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

#### ERABAKI DU

1. Onartzea Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaiaiko Udalen arteko lankidetzaren hitzarmena: **“2021. ekitaldian enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzei”** buruzko deialdiaren inguruan lankidetzaren hitzarmena, ebazpen honi eransten zaiona.

2.- Agindua ematea LANBIDEk emandako diru-laguntzari dagozkion transferentzia hauek egin daitezkeen, aurrekontuz kanpoko gastu gisa, behin diru-laguntzari dagozkion zenbatekoak jaso ondoren:

- PASAIAko Udala: 144.661,74 €
- OIARTZUNgo Udala: 62.500,00 €
- LEZOko Udala: 66.383,21 €
- Oarsoaldea: 54.155,52 €

3.- Hirugarren sektoreko entitatei diru-laguntzak emateko beharrezko izapideak egitea.

Visto lo dispuesto en los artículos 55 al 62 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, de Bases de Régimen Local, art. 47 y siguientes y 140 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y la contenida en la Ley 2/2016, de 7 de abril, de las Entidades Locales de Euskadi

Visto el informe de la Responsable de Recursos Humanos emitido el 03-12-2021.

Visto el informe de la Interventora municipal

De conformidad con la delegación de competencias que ostenta la Junta de Gobierno Local por Decreto de 1 de julio de 2019.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

#### ACUERDA

1.- Aprobar entre los Ayuntamientos de Errenteria, Lezo, Oiartzun y Pasaia el Convenio de cooperación relativo a las siguientes convocatorias: **“ayudas para acciones locales de promoción de empleo para el ejercicio 2021”**. El convenio se adjunta a la presente resolución.

2.- Ordenar las siguientes transferencias, con carácter de gasto extrapresupuestario, correspondientes a la subvención de LANBIDE, una vez se reciban los correlativos ingresos:

- Ayuntamiento de PASAIA: 144.661,74 €
- Ayuntamiento de OIARTZUN: 62.500,00 €
- Ayuntamiento de LEZO: 66.383,21 €
- Oarsoaldea: 54.155,52 €

3.- Realizar los tramites necesarios para conceder subvenciones a las entidades del tercer sector.



4.- Errenteriako Udalaren bitarteko propioa den Oarsoaldea SAr "Laneratzen laguntzeko jarduera" lanen enkargua egiteko beharrezko izapideak burutzea, LANBIDE – EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN laguntzen deialdiaren esparruan, 2021eko ekitaldirako enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako.

5.- Errenteriako alkateari, Aizpea Otaegi andreari, ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko.

6.- Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde mistoko udal ordezkari izendatzea Alazne Korta Zulaika Giza Baliabideetako zinegotzia eta M<sup>a</sup> Jose Sanchez Plaza Arduradun teknikoa.

7.- Erabaki honen berri ematea Pasaia, Lezo, Oiartzungo udalei eta baita ere, Oarsoaldea, S.A.ri."

4.- Efectuar los trámites oportunos para encargar al medio propio del Ayuntamiento de Errenteria Oarsoaldea S.A., la realización de los trabajos de "Actuaciones de acompañamiento en la incorporación laboral", en el marco de la convocatoria de ayudas de LANBIDE – SERVICIO VASCO DE EMPLEO para acciones locales de promoción de empleo para el ejercicio 2021.

5.- Facultar a la Alcaldesa de Errenteria, Sra. Aizpea Otaegi, para la firma del Convenio citado.

6.- Nombrar miembro de la comisión mixta para el seguimiento del presente convenio a la concejala de Recursos Humanos, la Sra. Alazne Korta Zulaika y a la Responsable técnica M.<sup>a</sup> Jose Sanchez Plaza.

7.- Comunicar el presente acuerdo a los ayuntamientos de Pasaia, Lezo, Oiartzun y a Oarsoaldea, S.A."

**4. PROCLADE YANAPAY FUNDAZIOA, herriaren onurakoak izan eta dirua irabaztea xede ez duten Elkarteen Udal Erregistroan inskribatzeko eskaera. (2021IIGE0005)**

**4. Inscripción de la FUNDACION PROCLADE YANAPAY en el registro municipal de Asociaciones sin ánimo de lucro. (2021IIGE0005)**

Errenteriako Udalak, 2001eko irailaren 28an, Herriaren Onurakoak izan eta Dirua irabaztea xede ez duten elkarteen udal erregistroa arautzen duen erregelamendua onartu zuen.

Erregistro honetan inskribaturik egoteko honako baldintzak bete behar dira:

- 1.- Errenteriako udalerrian lankidetzeta-lanak egitea.
- 2.- Eusko Jaurlaritzan Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurantzza Saileko Elkartearen Erregistroan behar bezala inskribatuta egotea.
- 3.- Elkartearen zuzeneko edo zeharkako eginkizunek, enpresaritzan, lan-profesional edo artistikoekin zerikusirik ez izatea.

Con fecha 28 de septiembre del 2001 el Ayuntamiento de Errenteria aprobó el Reglamento Regulador del Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin Ánimo de Lucro.

Las condiciones para estar inscrito en este registro son las siguientes:

- 1.- Realizar actividades de colaboración en el municipio de Errenteria.
- 2.- Estar debidamente inscritos en el registro de Asociaciones del Departamento de Justicia, Economía y Seguridad Social del Gobierno Vasco.
- 3.- No estar vinculado directa o indirectamente con el ejercicio de actividades empresariales, profesionales o artísticas.





2021eko irailaren 27an Jose Agustín Ortiz Calzadak PROCLADE YANAPAY FUNDAZIOA ordezkatzuz, aipatutako erregistroan inskribatzeko eskaera egin zuen.

Eskaerarekin batera, erregelamenduak eskatutako agiriak aurkeztu zituen.

Kultur aniztasuneko, garapenerako lankidetzako eta giza eskubideetako teknikariak 2021eko abenduaren 2an emandako txostena aztertu da. Bertan adierazi du eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa zuzena dela eta elkarteak inskribatzearen aldekoa dela.

Idazkari Nagusiak 2021-12-13an txostena eman du

Kultur Aniztasuneko delegatuak egindako erabaki-proposamena, eta Kultur Aniztasuneko arduradunak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkateak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau, aho batez,

#### ERABAKI DU

1.- **PROCLADE YANAPAY FUNDAZIOA**, Herriaren Onurakoak izan eta dirua irabaztea xede ez duten Elkarteak Udal Erregistroan inskribatzea.

2.- Honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea Udal Araudiko 9. artikuluko ondorioak izan ditzan.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidentek bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:30 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

Con fecha 27 de septiembre de 2021, Jose Agustín Ortiz Calzada en representación de la FUNDACION PROCLADE YANAPAY, solicita ser inscrita en dicho registro.

Junto con la solicitud presentan la documentación requerida en el reglamento.

Visto el informe de la responsable de la Subárea de Diversidad cultural, cooperación para el desarrollo y derechos humanos, de fecha 2 de diciembre de 2021, en el que se indica que la documentación presentada por el solicitante es conforme e informa favorablemente la inscripción de la citada asociación.

Visto el informe de la Secretaria General emitido el 13-12-2021.

Vista la propuesta de acuerdo del delegado de Diversidad Cultural y la conformidad dada por la responsable de Diversidad Cultural a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

#### ACUERDA

1.- Proceder a la inscripción de la **FUNDACION PROCLADE YANAPAY** en el Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin Ánimo de Lucro.

2.- Dar cuenta a la interesada así como a Intervención de Fondos Municipales a efectos del artículo 9 del reglamento Municipal.

Y sin más asuntos de los que tratar, la Presidenta levanta la Sesión, siendo las 09:30 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta. La Secretaria General.

ERRETERIAKO UDALA  
Idazkaritza



AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA  
Secretaría General

Errenteria, 2021eko abenduaren 14a

Errenteria, 14 de diciembre de 2021

Idazkaria / La Secretaria

Nagore Sarasola Otermin



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU8775b722-fdcd-442e-abf9-8d54705b6a37**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:  
**<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>**

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>**

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2021IGOB0016-AKTA/ACTA (ERRENTERIAKO UDALA)